

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Taldea: Iker, Beñat, Oier, Manex eta Ainhitze

Idea: Aparkalekurako aplikazioa eta produktua

Gure helburu nagusia, hasiera hasieratik bezeroak erakarri eta mantentzea izango da. Ez da lan erraza zerotik hasi eta ezezaguna den zerbitzu bat zabaltzea, baina hainbat estrategia erabiliko ditugu horretarako. Eskaintza bereziaz gain, marketin kanpainak ere martxan jarriko ditugu. Hala eta guztiz ere, bezeroaren arreta erakarriko duen gakoa bilatu dugu, eta aldiberean, enpresari itxura ona emango dion gakoa da. Ez da erakartzeagatik egiten dugun zerbaite, baina horren ondorio da bezeroen arreta piztea. Naturaz kezkatu eta CO₂-a isurtzen ez duten ibilgailuei erraztasunak jartzea, jende gehiago animatzeko horiek erosi eta erabiltzera, erabaki arriskutsu bezain interesgarria da. Horrek erakarriko dituela bezeroak aurreikusten dugu. Bestalde, gure bezeroak mantentzeko, tratu ona eta hartu-harreman egokia izatearekin nahikoa izango da. Zerbitzuarekin nahikoa gustura egongo baitira.

NOLA ERAKARRI?

- 1) Eskaintza bereziak
- 2) Marketin kanpaina
- 3) Laguntza pertsonala eskainiz